

SALAMANCA-KO UNIVERSIDADEA

Salamanca-ko Unibertsidadean «Manuel de Larramendi» izeneko katedrak, beste urteetan bezela, ikastaro bat antolatu du euskal-izkuntzaz, eta ortarako Luis Michelena euskaltzainia deitua izan da. Ori ala izanik ilbeltzean egin zuen egotaldia bertan.

«EUSKAL-KULTURAREN ALDE»-K EGINDAKO IPUI-SARIKETA

Euskal Kulturaren Alde izeneko elkargoak egindako Ipui-Sariketan Jean Etchepare Donapaleu-koak irabazi du lendabiziko saria «Mendekoste gereziak» titulua duen ipuiakin. Bigarrena Julene Azpeitia Durango-ko andreak «Goizeko izarra»-rekin. Irugarrena Marijane Minaberry Ustaritzeko anderañoak «Lupien bisita»-rekin. Sariak ogetabost, amabost, eta amar milla liberakoak izan dira. Ortaz gainera amabi sari milla liberako banatu dira. Epai au Miarritzen eman zuten «Euskal Kulturaren Alde»-ko batasunekoak 1960 Otsailaren 4-an.

DURANGO-KO ASTARLOA SALOIAN

Jentez beterik zegoela, Durango-ko Astarloa Saloian ere egin da Euskal-jai bat maiatzaren 22-an bertsolari, txistulari, Iyorretako dantzari ta kantariak parte arturik. Esan zan guztia euskeraz esan zan. A. Irigoyen-ek itz batzuek esan zituen asieran euskaldunak euskera maitatzera ta aintzat artzera bul-tzaturik.

BIZKAIKO NESKA MUTILLEN ESAMIÑAK

Iragarrita zegoen bezela garagarillaren 2-an egin dira Bilbon Bizkaiko neska-mutillen esamiñak. Jesuiten kolejioko gela batean izan da eta berrogei izan dira esamiñatu diran aurrak, Gabika, Laukiniz, Arrazola, Muxika, Ondarru, eta Bilbotik etorriak. Sariez gainera diplomak ere emango zaizkie, bai aurrari eta bai gertatzen alegindu diranai. Euskaltzaindiak Bizkairako egin duen sari-keta onek frutua ekarri du, eta pentsatu bear litzake nola esamiña auei zabaltasun aundiagoa eman.

BERTSOLARIEN SARIKETAK

Aurten ere gertatzen ari dira bertsolarien sariKETAK. Nafarroan ere bai. Bizkaian lendabizikoa Urkiola-n egin zan garagarillaren 19-an, igande egunez. San Antonio egunez ezin egin izan zan eguraldi txarragatik. Durango inguru-etako bost bertsolari aritu ziran eta txapeldun German Uriguen Ermuko semea gelditu zan. Igazko txapeldunak etzuen parte artu geroago txapeldun berriak zarrakin jartzeko asmoa dagoelako.

Nafarroan garagarillaren 26-an izan da txapelketa bat Lekunberri inguruko bertsolariantzat. Diputazioko **Euskeraren Aldeko Sailla**-k antolatu zuen, bide

nalde, 1.000 pezeta; 3) Lukax Dorronsoro, 500 pezeta. Jentez beteriz zegoen saloia. Eszenarioan Tolosa-ko alkate Enrique Ortiz de Zarate eta Euskaltzaindiko buruzagi Ignazio Maria Echaide jaunekin batera beste Euskaltzaindiko jaunak eta Ayuntamentukoak paratu ziran. Alfonso Irigoyen jaunak juraduaren erabakia irakurri zuen eta sariak eman ziran txalo beroen artean. Mi-rentxu Moraiz "Lizardi" taldeko anderañoak poema sarituaren lendabiziko partea eta Lizardi-ren azken poesia, sekula argitaratu gabea, esan zituen eta publikoak txalo ugari egin zuen. Gero Orixe-k itzaldi eder bat irakurri zuen gogora ekarririk Lizardi zanarekin zuen adiskidetasuna. Eta bukatzeko Antonio Arrue jaunak itzaldi bat egin zuen euskal-gauzen alde.

Eguerdiaren anaitasunezko bazkari bat egin zan euskaltzain, agintari eta Monseñor Olano Guam islako apezpiku kaputxinoak ere parte artzen zutela, eta etziran faltatu bertsoak ere.

Arratsaldean Zezen Plazan, puntatik puntara beterik zegoela, euskal-jaiak, aipatutako jaunak buru egiten zutela ikusleen artean. Iruñeako Dantzariak, Gazteiz-eko "Txiribil", Bilboko "Gaztedi", Miarritzeko "Oldarra", Donostia-ko "Oinkari", eta Donostia-ko Kantari eta Dantzari taldea izan ziran parte artu zutenak dantzetan. Basarri ta Uztapide-ren bertsoak ere entzun ziran.

Eta eguna Zumardi Txikian egindako erromeria batekin bukatu zan.

Aurreko egunetan ere, ospea emanik gorazarreari, zenbait gauza egin ziran: 22-an "Lizardi" taldeak Iparragirre Teatroan "Ezkondu ezin ziteken mutilla" teatro-obra eman zuen. 24-an Luis Michelena jaunak itzaldi bat egin zuen. Eta 27-an pelota partiduak jokatu ziran.

BIZKAIKO NESKA MUTILLEN EUSKAL-ESAMIÑAK

1961-VI-15-ean egin ziran, aurreko urtean bezela, euskal-esamiñak Bilbon, Jesuiten kolejioko gela batean. Ogetaemeretzi aur esamiñatu ziran Laukiniz, Iyorreta, Algorta, Muxika, Mungia, Arrankudiaga eta Bilbotik etorriak.

Sariak eta diplomak Bilboko Coliseo Albia-n 1961 agustuaren 27-an egin zan Bizkaiko bertsolarien laugarren azken txapelketa nagusiaren asieran partitu ziran.

Lendabiziko saria amabi urtetik gorakoen artean Maria Dolores Urrutia Laukiniz-koak irabazi zuen, eta gazteagoen artean Maria Teresa Zugaza-artaza Iyorreta-koak.

BAYONA-KO IRAKAS-SOLASAK

Bayona-ko Musée Basque-n itzaldi batzuek egin ziran euskal pedagogiaz 1961 agustuaren 31-an eta irailaren 1-ean. "Euskal Kulturaren Alde" eta "Ikas"-ekoak prestatuta. Azkenengo egunean Euskaltzaindiak bere batzarrea egin zuen. Ona emen nola:

pánicas antiguas. Lo que se conoce hoy acerca del ibérico y del celtibérico. Coincidencias aparentes entre ibérico y vasco: posibilidades de explicación."

1963 urteko azaroaren 5-ean Jose M.^a Busca Isusi jaunak leku berean "Análisis de la llamada cocina vasca" gaiaz.

1963 azaroaren 12-an Antonio Arrue jaunak. Titulua "Cuatro poetas vascos actuales". Aita Xabier Diharce "Iratzeder", Jean Mirande, Aita Gandiaga eta Gabriel Aresti euskal poetak dira estudiatu zituanak.

1963 abenduaren 30-ean Florentino Castaños jauna aritu zan "Apologistas vascos: Larramendi y Astarloa" gaiaz.

BIZKAIKO NESKA MUTILLEN EUSKAL ESAMIÑAK

1962 garagarillaren 28-an egin ziran Euskaltzaindiak antolatutako neska mutilen euskal esamiñak Indautxu-ko Aita Jesuiten kolejoan. Ogetaamazazpi neska mutil aurkeztatu ziran guztiz Iyorrreta, Mungia, Laukiniz eta Bilbokoak. Nagusiagoen artean Kristina Mardaras Iyorrreta-koak irabazi zuen saririk aundiena eta txikiagoen artean Maria Teresa Zugazartaza Iyorrreta-koak. Sariak 1963 ilbeltzaren 13-an partitu ziran Arriaga Teatroan.

1963 urtean ere leku berean esamiñatu ziran garagarillaren 27-an eta irurogei neska ta mutil aurkeztatu ziran Iyorrreta, Laukiniz, Mungia eta Bilbokoak.

EUSKALTZAINDIAREN JAIA BILBON

Aurreko urteetan bezela 1963 ilbeltzaren 13-an egin zan Arriaga Teatroan. Lendabizi aurreko urtean esamiñatu ziran aurrai sariak eta diplomak eman zizkien Eusebio Erkiaga eta Alfonso Irigoyen jaunak publikoaren txaloen artean. Gero "Danak bat" alkartadeko artista talde Mungia-koak Manuel Ziarsolo "Abeletxe"-n obra bat eman zuen bi ekintza eta lau irudikoa. Mungia-ko Orfeoiko talde aukeratu batek ere parte artu zuen Jose Maria Arregi apez jauna zuzendari zala eta baita Bilboko Dindirri euska! dantza taldeak ere.

Gipuzkoan:

Andoain-en, garagarrillaren 21-ean, Domingo Garmendia Berrobi-koa eta Kasiano Ibaguren Lizartza-koa berdin.

Mondragoe-n, garagarrillaren 28-an, Jose Maria Gabilondo Antzuola-koa txapeldun eta Jesus Egileor Alberdi bigarren.

Errenteria-n, uztailaren 23-an, Frantzisko Etxeberria Lasarte-koa txapeldun eta Kosme Lizaso Oiartzun-goa bigarren.

Azkoiti-n, abuztuaren 9-an, Manuel Olaizola Arroa-koa, Uztapide-n illoba, txapeldun eta Pedro Aizpurua "Lilibere" Zestoa-koa bigarren.

Beasain-en, iraillaren 20-an, Jose Intxausti Segura-koa txapeldun eta Jose Antonio Aranzadi, Ezkio-koa bigarren.

Zarautz-en, azaroaren 15-ean, Jose Maria Lertxundi Aya-koa txapeldun eta Jose Maria Roteta Aya-koa bigarren.

Eibarren, abenduaren 6-an, Gipuzkoako txapelketa nagusiaren aurrekoa. Aurreko txapelketetan txapeldun eta bigarren gelditutakoak parte artu zuten. Jose Maria Roteta ezin joan izan zan desgrazi bategatik eta bere ordeaz Markos Manterola joan zan. Gaiñera Joakin Mitxelena eta Jose Migel Iztueta "Lazkao-txiki" ere sartu ziran. Azkenerako gelditu ziranak dira: Lazkao-txiki —Eibar-ko kopa irabazi zuen—, Garmendia, Mitxelena, Intxausti, Etxeberria, Ibaguren, Lizaso eta Lertxundi.

Tolosa-n, abenduaren 13-an, Gipuzkoako azken txapelketa nagusia. Jose Migel Iztueta "Lazkao-txiki" txapeldun. Domingo Garmendia bigarren. Eta Joakin Mitxelena irugarren. Irurak Euskalerriko txapelketan parte artzeko gelditu ziran.

Bilbon:

Capitol-ean, abenduaren 20-an, Euskalerra osoko azken txapelketa nagusiaren aurrekoa. Guztiak pasatu ziran azkenekora. Jose Migel Iztueta, Joakin Mitxelena, Domingo Garmendia, Fernando Aire "Xalbador", Mattin Trecou, Andres Narbarte, Migel Arozamena, Juan Lopategi eta Juan Mugartegi. Bizkaiko Diputazioaren kopa "Lazkao-txiki"-k irabazi zuen eta Bizkaiko Aharro Kaxarena Joakin Mitxelena-k. Manuel Olaizola "Uztapide" eta Iñazio Eizmendi "Basarri"-k eskubidea zuten Euskalerriko azken txapelketa nagusira joateko besteetan parte artu gabe. Basarri etzan joan.

BIZKAIKO NESKA MUTILLEN EUSKAL ESAMIÑAK

1964 garagarrillaren 11-an, aurreko urteetan bezela, Indautxu-ko Aita Jesuiten kolejoan Bizkaiko neska mutilen esamiñak egin ziran. Sariak 1964 abenduaren 20-an eman ziran Capitol-ean egin zan bertsolarien txapelketan.